

Zinema eta balioen hezkuntza

Gida didaktikoa eta
Sang Woo eta bere amona
filmarentzako egokitzapena

Ekoizpena: Donostiako Udala
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Testua: Isabel Alba



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos

Donostia / San Sebastián



Giza Eskubideen Zinemaldia
Festival de Cine y Derechos Humanos
Human Rights Film Festival



Laguntzailea:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA BAIKA
Diza Erakundearen eta Justiziako
Larrietararen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y de Cooperación con la Justicia

Zinema eta balioen hezkuntza

Gida didaktikoa eta
Sang Woo eta bere amona
filmarentzako egokitapena

Ekoizpena: Donostiako Udala
Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Testua: Isabel Alba



Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza
Dirección de Juventud, Educación, Cooperación y Derechos Humanos



Laguntzailea:

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE
SEGURANTZA SAIALA
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko
Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos
y de Cooperación con la Justicia

ZINEMA, BALIOETAN HEZTEKO BIDE

Donostiako Alkateak eta Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Departamenduak **“Donostia, Bake Kulturaren Gunea”** programa sustatzen dugu, zeinaren helburua, hiriaren alde hezitzailea indartzea ez ezik, giza eskubideen defentsa, diferentziaren, askatasunaren, elkartasunaren errespetua, eta zuzentasuna eredu dituen elkarbizitzarako konpromisoa agerraraztea baita.


Programa honetako ekimenen artean txertatzen da **Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia**, gogoeta solidarioa hiri honetan bizi ohi dugun zinema-zaletasun gogotsuarekin batzen duena. Urtero ospatzen dira Zinemaldiaren barnean goizeko saioak, Donostiako eskolaumeentzat bereziki pentsatuak. Saio hauen kariatara sortu da **Zinema eta Balioen Hezkuntza Lantzeko Gida Didaktiko** hau. Zinemak edukiak transmititzeko ahalmen eta erakargarritasun handia duenez, proiektu berri honek zinemaren dohainaz baliatu nahi du, eta bideratu, gure ume eta gaztetxoak bakearen, giza eskubideen eta bizitzaren errespetuaren balioetan hez daitezen.

Gidaren ahalmen pedagogikoa ikastetxeetatik harago luzatzeko asmo sendoa badago, hain zuzen hirian formazio jarduerak egiten dituzten agente soziokulturalen lankidetzeta ere bilatzen da, materiala erabil dezaten.

Material didaktiko honen lanketan jardun duten hezitzaileen eta, bereziki, neska-mutilen partaidetza eskertu nahi dugu, orain, haiei esker, hiritar gazteenek giza eskubideen alorrean gogoetarako eta hausnarketarako beste baliabide bat daukate eta.


Bene-benetan espero nahi dugu proiektu hezitzaile honek gure hirian demokraziaren eta giza eskubideen balioetan oinarritutako bake kultura zabaltzen lagun dezan.

ODON ELORZA



Donostiako Alkatea

ARRITXU MARAÑÓN



Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zinegotzi Delegatua

IRUDIAK HAUSNARTU/HITZAK IRUDIKATU

Mugimenduko irudien gauzarik liluragarriena esanahien oparoa da, oraindik ere harritu egiten naute. Ez naiz sekula ohitzen. Irudiak instanteko sar gaitzake gai batean, sakon eta zehatz sartu ere. Idatzizko hitzen bidez ondorio berberetara iristeko, orrialde asko beharko genuke. Haur eta gazteekin ikus-entzunezkoen bidezko hezkuntzan emandako hamar urteko lanaren ondoren, etsi-etsian sinesten dut irudiak –baliabide ia jorratu gabea izanagatik– hezteko duen garrantziaren itzelean, bai gazteenek irudi berrien bitartez errealitateaz duten ikuspegia emateko eta komunikatzeko sormen handia erakutsi dezaketelako, bai besteek egindako irudiak irakurtzen irakats dakiekeelako, dela hainbat gaitara eraginkortasunez hurbiltzearren, dela zentzu kritikoa zorroztearren.

Pedagogia argitalpenetan adierazia nahiz irudiak pentsatzearen edo hitzak pentsatzearen artean ez litzatekeela bereizketarik egin behar. Lehenetsi beharreko eginkizuntzat dut lortzea adierazpide biak, irudiak eta hitzak, elkarren osagarri eta bereiztezinak izatea, pertsonen formazio integralari begira behintzat. Hartara, ahozko adierazpidearen garapena eta irudien irakurketa, biak ala biak, idazten irakastearen aurreko maila gisa landu behar liratekeela pentsatzen dut. Hemen aurkezten den material didaktikoak ildo hori zabaltzen du, ikasgelan ahozko lana eginez filmaren aztertzea baitu xede aktibitate gidak.

Hauxe da, bada, erronka, bide berri hau egiteko aukera eman zaidanez plazaratu nahi dudana. Bide beretik beste hezitzaile asko batuko zaizkidalakoan, gogoz eta kemenez ekiten diot.

ISABEL ALBA

Testuen egilea

Gidoilari, idazle eta ikus-entzunezko irakaslea

AURKIBIDEA

Orientabideak eta <u>azterketarako jarraibideak</u>	9
Metodologia orokorra	11
<i>Sang Woo eta bere amona</i> filmarentzako egokitzapena	23

ORIENTABIDEAK ETA AZTERKETARAKO JARRAIBIDEAK

Zinema eta Balioen Hezkuntza Lantzeko Gida honek baliabide berri eta eraginkorra eskaini nahi die Donostiako hezkuntza sareari nahiz formazio lanetan diharduten erakundeei, zinemaren bitartez gure hiriko 6 eta 14 urte bitarteko neska-mutil eta gaztetxoak balioetan hez daitezen.

Gazteria, Hezkuntza, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak eta Donostia Kulturak elkarrekin antolatutako **Giza Eskubideen Zinemaldiaren** ondorioz sortu da material hau, Zinemaldia bera ere **“Donostia, Bakearen Gunea”** programaren baitako ekimen baten ondorioz sortu den bezala.

Zinemaldiak urtero antolatzen ditu goizeko emanaldiak, Donostiako ikastetxeentzat berariaz antolatu ere. Gida honen helburua harago joatea da, eta goizeko emanaldien gogoeta gaiak ikusi ahala agor ez daitezen eta gerora, zinemalidik kanpo ere, balioak lantzeko aukera izan dezaten, ikasgelan eta ikastaroan zehar.

Ikus-entzunezkoen hizkera da, ezbairik gabe, ikasle belaunaldi gazteengandik hurbilen dagoena, ohikoen dutena. Zinema bitarteko erakargarria da, gazteei edukiak transmititzeko erarik eraginkorrena, aukera gehien ematen dituen. Horregatik, gida honek ahalmen handi hori baliatzen du, askatasuna, errespetua, tolerantzia eta aukeren berdintasuna bezalako balioak aintzat hartzen dituen hezibide bat haur eta gaztetxoenganaino helaraztearren.

Hezitzaileek (Isabel Albak aipamen berezia merezi du) zein neska-mutilek (“Orixe” ikastolakoak nabarmendu beharra dago) lagundu dute gida honen presaketan. Gidaren zer nolakoak prestatzerakoan, irakasleen lagungarri, orientabide gisa lantzea erabaki da, ardura nagusia ikasleen gain delarik, balioetan heztekoko gaiak filmetan agertuz gero, ikasgelan halako edukiei irakasleak ez baina ikasleek berek ahalik eta etekin gehiago atera diezaieten.

Gidak dauzkan aztergai eta jarraibideak irakasleek ikasleak orienta ditzaten diseinatu dira; hots, ez irakasleek baizik eta ikasleek interpretatu behar dituztela pertsonaiak eta argumentua, beraiek identifikatu behar dituztela filmean ageriarazitako balioak. Hartara, partaidetza kolektiboa bultzatzen da, ahoz nagusiki, eztabaidatik ondorioak ateratzearren.

Bost lan eta sakontze maila proposatzen dira, alegia, filma aztertzeko beste hainbeste aukera, zeren eta helburuetako bat malgutasuna baita, ikastetxe eta ikasgela bakoitzak bere ahalmenen eta nahien arabera jorra dezaten filma.

Horrela, bada, jarraian aipatzen diren alorrak segidan jorra daitezke, edo bana-ka eta zein bere kasa:

- a) Pertsonaia protagonista(k) eta antagonista(k).
- b) Pertsonaiek daukaten ikuspuntua.
- c) Ikasleek berek asmatutako pertsonaia berrien sorkuntza.
- d) Argumentuaren azterketa.
- e) Irudiaren azterketa.

Lan maila hauek filma ikusi ondoren jorratzen dira, baina gidak filma ikusi aurreko jardunaldi laburra ere proposatzen du, datu batzuk aurreratuta ikasleei ikustaldia eta geroko azterketa albait mamitsuena gerta dakien.

Metodologia orokorra gauzatzeko, adibide modura film zehatz baten azterketa proposatzen da: Lee Jung Hyang zuzendariaren *Sang Woo eta bere amona*, (Hego Korea, 2002, 87').

GAZTERIA, HEZKUNTZA, LANKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA
DONOSTIAKO UDALA

ZINEMA ETA BALIOEN HEZKUNTZA LANTZEKO GIDA DIDAKTIKOA

Metodologia orokorra

Metodologia orokorra

Helburu orokorrak

Asmoa da, lantzeko tresna irudi zinematografikoa dela, haurrak eta gaztetxoak Giza Eskubideen inguruan jorratzen diren gaietara hurbiltzea, era kritikoan hurbiltzea ere, ahoz ez bestelako bidez.

Edukiak kontzeptuzkoak

- a) Argumentuak eta pertsonaiek duten garrantzia, ikus-entzunezko historia bat garatzeko tenorean ikusleari gai zehatz bat eta gaiari berari heltzeko era zehatz bat komunikatzekotan.
- b) Historia iruditan kontatzeko era, errealitateari begiratzeko era den heinean.
- c) Ikus-entzunezkoaren muntaketa: ordena, esanahiaren eramaile.

Prozedurazkoak

- a) Pertsonaien eta argumentuaren ahozko azterketa kritikoa, filmean jorratutako gai(ar)en arabera.
- b) Pertsonaia eta argumentu berrien sorkuntza, ahoz, filmean jorratutako gai(ar)en inguruan dugun ikuspegia planteatu eta komunikatzeko tresna gisa.
- c) Irudi zinematografikoaren ahozko azterketa kritikoa, filmean jorratutako gai(ar)en arabera.

Jarrerazkoak

- a) Partaidetza lan taldean: lankidetzan antolatutako lana aintzat hartzea.
- b) Ahozkotasuna aintzat hartzea: ideiak antolatzen eta estrukturatzen ikastea; argudiatzen eta irizpideak defendatzen ikastea, batbederarenak ez diren irizpideak ere onetsiz eta errespetatuz.
- c) Aukeratutako gai(et)an era kritikoz sakontzea: besteen ikuspegiaren onespina eta estereotipoen haustura.
- d) Edukiak eta irudiak aztertzeke gaitasuna.

Aztertzeo jarraibide orokorrak

- Filmaren azterketa, edukiei eta argumentuaren hariari begira ez ezik, Giza Eskubideekin lotutako gai baten edo batzuen arabera bideratuko da.
- Filmaren material didaktikoan eskeintzen zaizkie irakasleei filmaren datu guztiak, jorratu beharreko gaia edo gaiak, bai eta azterketa maila desberdinetan garatzeko jarraibide zehatzak ere.
- Film batean gai bat baino gehiago proposatuko balira, irakasleen esku gertatzen da erabakitzea denak jorratzea edo bakar bati jaramon egitea.
- Filmaren azterketa beti planteatuko da sakontze maila desberdinetan.
- Material didaktiko honen ezaugarrietako bat malgutasuna da: helburua da ahozko lan bat egitea ikasgeletan, eta horregatik ez dago euskarri idatzirik, zurrunik, ikasleei eskaintzen zaienik beren garapenerako oinarri gisa. Irakasleek ikasle taldearen ezaugarrien arabera molda dezakete materiala, duten denbora ere kontuan hartuta. Haren esku gelditzen da azterketa-maila guztiak betetzea edo haietako batean gelditzea, maila bakoitzean denbora gehiago edo gutxiago ematea eta maila bati edo gehiagori lehentasuna ematea besteen aurrean.
- Iradokizun moduan, honako aukerak proposatzen dizkizuegu filmaren gaiaren azterketa egiteko –irakasleak beste asko asma ditzake–:
 - a) 1. maila besterik ez burutzea.
 - b) Pertsonaien azterketara mugatzea, 1., 2. eta 3. mailetan, edo 1. eta 3. mailetan gutxienez.
 - c) Pertsonaietan gehiegi sakondu gabe, 1., 4. eta 5. mailetan argumentua eta irudia jorratzea.

Filma ikusi aurreko aktibitateak

- Filmaren izenburua, jatorrizko herrialdea, urtea eta iraupena jakinaraztea ikasleei.
- Filmaren argumentua azaltzea, labur, soil eta bukaera jakinarazi gabe.
- Filmaren errodajeari buruzko material didaktikoan eskaintzen diren datuak helaraztea ikasleei, ikusteko irrikatan ez ezik ikusi bitartean erosoago eta jakin minez egon daitezen.
- Narratzen den historiaren haria testuinguruan kokatzea, ikasleak errazago xerta dezan ezagutzen duen eguneroko errealitatean.

- Pertsonaia nagusiak zeintzuk diren azaltzea, sakondu edo bestelako ezaugarriak eman gabe.
- Filmaren hariaren berri ematea, baina inoiz argi eta garbi azaldu gabe, gero-ko azterketari eraginkortasuna gutxiagotuko litzaioke eta.
- Film bakoitzari dagokion material didaktikoan, zehazten diren atal batzuei bereziki erreparatzeko eskatzea ikasleei.
- Filma bukatu orduko, zein une izan duten gustukoen, eta zergatik, azal dezatela eskatzea.

Filma ikusi ondorengo aktibitateak

- Ikasleekin gelan egin beharreko lan guztia ahoz egingo da, hain zuzen ideiak ordenan espresatzeko ahalmena bultzatzeko eta elkarrizketaren dohainak –alegia, argudioak azaldu eta defendatzeko nahiz besteenak entzun eta amore emateko gaitasunarenak– irakatsiz.
- Ez zaie ikasleei inoiz ere eskatuko idatz dezaten, non eta ez baldin bada beraiek propio erabili nahi dutela baliabide hau, lana erraztuko dielakoan.
- Jarduteko 5 maila planteatzen dira:

1. MAILA: Pertsonaia protagonist(ar)en eta antagonist(ar)en azterketa.

2. MAILA: Pertsonaietatik eta beren ikuspegietatik abiatuta, jorratutako gai(et)an sakontzea.

3. Maila: Jorratutako gai(et)an sakontzea, taldeka sorrazitako pertsonaia berrien bitartez; pertsonaiok ikasleen ingurutik hurbil egon daitekeen jendearengan oinarrituak dirateke.

4. Maila: Argumentuaren azterketa, jorratutako gai(ar)en ikuspegitik batik bat.

5. Maila: Irudiaren azterketa, jorratutako gai(ar)en arabera.

1. Maila

Pertsonaia protagonist(ar)en eta antagonist(ar)en azterketa

Pertsonaia protagonista(k)

Jarraibideak

- Ikasleak ahalik eta gehien jorratu behar du pertsonaia protagonista, bere izaera, pentsaera eta portaera, gerora bere motibazioetan sakondu ahal izateko.
- Horretarako, ikasleak ahoz aztertuko ditu pertsonaiaren gutxieneko ezaugarriak eta jarduerak.
- Pertsonaia protagonista arbelaren bitartez eraikiko da; hots, irakasleak arbelean ordenaturik idatziko ditu ikasleek aipatutako ezaugarriak.
- Irakasleak gidariarena ez beste egitekoa izango du. Elkarrizketa gidatuko du, behar izanez gero bideratuz eta egoki antolatuz, baina ikasleen pentsaera edo adierazpiderik ez du inola zuzenduko edo alde batera nahiz bestera eramango.

Aktibitatearen nondik norakoak

1. Ikasleek pertsonaiaren hiru dimentsioak jorratuko dituzte:
 - a) Itxura fisikoa
 - b) Izaeraren ezaugarriak
 - c) Testuinguru soziala
2. Pertsonaia protagonistaren izaeraren ezaugarrietan denek egon behar dute ados, beti ere filmean adierazitako jarrera eta portaeretan oinarriturik.
3. Ikasleek ahoz azalduko dute pertsonaia protagonistaren arazoa edo egoera, eta zer dela-eta jazo zaion. Nola jokutzen du haren aurrean? Motibazioak zehatz-mehatz aztertuko dira.

Abiapuntua ikasleek berek proposatuko dute. Irakasleak gidariarena beste lanik ez du egingo.

4. Ikaslea pertsonaia protagonistarekin bat egitera gonbidatuko da: berdin jokatuko lukete egoera bereberek baleude? Hala ez bada, nola uste dute jokatuko luketela? Halako egoeran egon al dira inoiz?

5. Behin ikasleek pertsonaiaren arazoa ezagutu eta haren motibazioez gogoe-
ta egin eta gero, eztabaida bideratuko da portaeraren aldaketa azaltzera,
halakorik gertatzen bada behintzat. Agertutako irudi zehatzen bidez adiera-
ziko/azalduko dituzte ikasleek protagonistaren erreakzio desberdinak.

Pertsonaia antagonista(k)

Pertsonaia protagonistaren inguruko **aktibitatearen jarraibide** zein **garapen** berberak izango dira honetan ere; antagonistaren eta protagonistaren arteko harremanetan ager daitezkeen motibazioaz, ikuspegiak edota egoeraz egin beharreko gogoeta gehituko zaio, jakina.

2. Maila

Pertsonaietatik eta beren ikuspegietatik abiatuta, jorratutako gai(et)an sakontzea.

Jarraibideak

- Pertsonaien bitartez jorratutako gaietan sakontzea da bigarren maila honen helburua.

Aktibitatearen garapena

1. Gela bitan banatuko da: talde batek pertsonaia protagonista ordezkatu du, eta besteak, antagonista.
2. Ikasleak azalduko die egitekoa, hots, talde bakoitzeko ikasleek orain arte dakitenaren arabera jokatu behar dutela pertsonaiaren ikuspegia hartzerakoan: nolakoa den, eta nolako ingurumen soziala duen; zein gatazka duen eta haren aurrean nola eta zergatik jokatzeko duen.
3. Talde bakoitzak bilera labur batean prestatuko du bere pertsonaiaren defentsa.
4. Eztabaida bat antolatuko da, zeinean talde bakoitza beste taldeak bere pertsonaiaren jarrera uler dezan saiatuko baita. Halaber, beste taldekoei galde-tu ahal izango diete beren pertsonaiarengan aurkitu ahal dituzten ilun edo hutsunez.

Eztabaida bitartean, irakasleak parte hartuko du elkarrizketa ordenatua izan dadin; behar izanez gero galderak egingo ditu, batez ere ikasleek pertsonaiaren jarreraren zergatiak agerraraz ditzaten lortzearen.

5. Eztabaida bukatu orduko, irakasleak egoki irizten badio eta beti ere planteatutako gaien inguruan konklusioak ateratzeko asmoz, defendatutako jarrerak balora daitezke.

3. Maila

Jorratutako gai(et)an sakontzea, taldeka sorrazitako pertsonaia berrien bitartez; pertsonaiok ikasleen ingurutik hurbil egon daitekeen jendearengan oinarrituak dirateke.

Jarraibideak

- Helburua da gaztetxo bakoitzaren zein ikaskideen eguneroko errealitatera hurbiltzea. Pertsonaia eta egoera berriak asmatuz, besteen arazoen aurrean ulertzeko gaitasuna ez ezik irtenbideak bilatzen laguntzeko gogoia ere areagotzeko ahalegina da, bada.
- Filmaren material didaktikoan, orientabide huts, pertsonaia eta egoera posible batzuk iradokiko dira, irakaslearen lana erraztearren; baina hoberena da ikasleek berek proposatzea eta asmatzea pertsonaia berriak.

Aktibitatearen garapena

1. Irakasleak bosna laguneko taldeetan banatuko du gela.
2. Talde bakoitzak pertsonaia bana asmatuko du; filmean planteatutako –haiek hautatu edo irakasleak erabakitako– arazo(ar)ekin lotua egongo da eta, era berean, ikasleen eguneroko ingurutik hurbil.
3. Pertsonaiaren ezaugarriak buruz, idatziz edo marrazkiz azal ditzakete ikasleek.
4. Talde bakoitzak ahoz aurkeztuko die gainerako ikaskideei bere pertsonaiaren berri, zehatz-mehatz: itxura fisikoa, izaera, ingurumen soziala eta biografia. Bereziki erreparatuko zaio bere arazoari, eta denen artean saiatuko dira konponbideak bilatzen.

4. Maila

Argumentuaren azterketa, jorratutako gai(ar)en ikuspegitik batik bat.

Jarraibideak

- Gure portaeraren garrantziaz ikasleak ohartaraztea da ariketa honen helburua; izan ere, egiten dugunak badauka eragin zuzen edo zeharkakoa benetako gertaeretan, pertsonaienak historiaren harian daukan bezalaxe.
- Narrazio errealistan, pertsonaiak dira historia aurrera eramaten dutenak. Gatazka baten aurrean, pertsonaia batek bere ezaugarriekin bat egiten duen jokaera agertzen du, eta ez bestelakoa. Aurkakoak ere horren arabera jokatzen du, eta hala josten da historiaren hari dramatikoa, harik eta bukatzen den arte.

Aktibitatearen garapena

1. Ikasleek, irakaslearen laguntzaz, ikusitako filmaren laburpena ahoz egingo dute.
2. Jarraian, historiaren haria kontatuko dute denen aurrean: zergatik gertatzen da gertatzen dena eta ez besterik bukaerara iritsi arte?
3. Irakasleak proposatuko die ikasleei planteatzen dezaten zer gertatuko zatekeen pertsonaia nagusiak edo antagonistak bestela jokatu balu.
4. Gela taldeka banatuko da. Talde bakoitzak jarrera desberdina proposatuko du protagonistarentzat edo antagonistarentzat, eta abiapuntu horrek filmarenaz bestelako gertaera-kateara eramango ditu, eta beharbada bukaera berri batera. Kontua da, pertsonaien portaera soilik aldatuz, historiaren haria aldatzea.

Areago, talde batek protagonistarentzat proposatutako jarrera berria beste talde batek antagonistarentzat proposatutako beste jarrera batekin proposa daiteke. Aukerak ezin zabalagoak direla frogatuko dute ikasleek.

5. Proposatutako aukera desberdinak denen artean eztabaidatuko dira: zer gertatuko litzateke baldin ba...?”. Esaldi horren bidez irakaslea ahaleginduko da ikasleek fikziotik errealitatera jauzi egin dezaten.

5. Maila

Irudiaren azterketa, jorratutako gai(ar)en arabera.

Jarraibideak

- Errealizazioaz eta muntaketaz arreta gehien erakarritako gauzak aipatuko dituzte ikasleek, eta, ahal dela, aukeratutako gai(ar)ekin harremanetan jarriko.
- Jorratutako gai(ar)ekin estu lotutako oinarrizko sekuentzia pare bat-edo proposatuko ditu irakasleak, eta transmititu nahi ziren edukiak azaltzekotan nolako erabilera egin den irudiaz denen artean komentatuko da.
- Orientabide gisa, filmaren material didaktikoan hiruna sekuentzia proposatzen dira, nahi izanez gero aztergai erabil daitezzen.

Jorratutako filmaren gaia(k) borobiltzeko gehitutako beste osagaien azterketa.

Jarraibideak

- Jorratu beharreko osagaiak filmaren arabera proposatuko dira, eta filmari dagokion material didaktikoan txertaturik aurkituko ditu irakasleak.
- Kasu batzuetan musika aztertuko da, bestetazuetan dekoratuak, denborapasabideak, off-eko ahotsak, kolorearen tratamendua edo filmean erabilitako beste zeinahi baliabide narratibo, jorratutako gaia(k) agerrarazteko baliagarri izanez gero.

ZINEMA ETA BALIOEN HEZKUNTZA LANTZEKO GIDA DIDAKTIKOA

Sang-Woo eta bere amona filmarentzako egokitzapena



Bereziki, 10-14 urte bitarteko gazte eta haurrei zuzendua.

Filma ikusi aurreko aktibitateak

1. Fitxa teknikoa

Jatorrizko izenburua: *Libeuro*

Herrialdea: Hego Korea

Urtea: 2002

Zuzendaria: Lee Jung Hyang

Aktore nagusiak: Yoo Seung-ho eta Kim Ui-boon

Generoa: Drama

Iraupena: 87´

Sariak: Torontoko Zinemaldia 2002, Sekzio Ofizialean; Donostiako Zinemaldia 2002, "Zuzendari Berriak" Saileko Aipamen Berezia.

2. Argumentuaren Sinopsia

- Sang Wook, Hego Koreako hiri handi batean jaio eta hazitako umeak, eza-gutzen ez duen amonaren zaintzapean pasa behar du uda, amak, ekonomiki estu eta larri baitago, lana bilatzeko denbora izan dezan. Sang Wooren amona mutua da eta bakarrik bizi da Chungchong eskualdeko herrikka txiki batean. Amonaren eta ilobaren arteko harremana hasieran zaila izango da; izan ere, Sang Wook bizimodu aldaketa gustuko ez eta egoera berriari uko egingo dio. Hasierako errefusa, baina, maitasun eta konfiantzazko harremanak ordezkatu du.

3. Filmaren errodajeari buruzko hainbat datu

- Lee Jung Hyang zuzendariak film dibertigarri, hunkigarri eta amaiera baiko-rrekoa egin nahi zuen. Bera zaindu zuen amonaren omenez, inolako baldintzarik gabe dena emateko prest dagoen amonaren pertsonaia aurkeztea zuen asmoa
- Errodatzeko toki egokia aurkitzea izan zen filmaren problemetako bat. Azkenean Young-dong aukeratu zen, pertsona oso helduek osatutako zortzi familia besterik ez zuen herrikka.
- Ez zegoen herriraino iristeko errepiderik, basabidea baizik. Errodajeak iraun bitartean, filmazio ekipoak soin gainean igo behar izan zituen kamerak eta material tekniko guztiak, egunero.
- Interprete gehienak Young-dong eta aldirietako baserritarrak dira. Errodajeak aurreikusitako hilabetea ez baina sei iraun zuenez, baserritarrak bertan behera utzi nahi izaten zuten, baserri lanak ere bazituzten eta.
- Amonarena egiten zuena, Kim Ui-boon, beti bizi izana zen Young-dongen; harrigarriago da, berriz, ez zuela sekula film bat ere ikusia.

- Filmak errodatutako amonaren etxea Kim Ui-boon berarena da.
- Yoo Seung-ho, Sang Woorena egiten duen umeak bai zeukala aktore lane-tan eskarmentua, telebistarako sail batean, hain zuzen ere.
- Yoo Seung-hok, Sang Woo bezala kalekumea zenez, hasieran ez zuen oso gustuko baserri giroa, xomorroengatik batez ere; baina gero ohitu egin zen, eta gozaten zuen, adibidez, sugandilen bila ibiliz.
- Herria oso txikia zenez, filmazio taldeak eta baserritarrek sei hilabetez harreman estuan bizi behar izan zuten. Azken diosala oso hunkigarria izan zen, eta askok, Lee Jung Hyang zuzendaria tartean, negar egin zuten.

4. Filma testuinguruan kokatzeko

- *Sang Woo eta amona* Hego Korean gertatzen da, baina Sang Wooren hiria ikasleenaren oso antzekoa da, eta ohiturak ere berdintsuak ditu: eskolara joan, telebista ikusi, bideojokoekin jolastu, zinemara joan edota batzuetan marka komertzial bereko jatetxeetan jan. Kulturari alde handia izanagatik, amonaren herria bezalakoak, baserri girokoak ere, badaude ikasleengandik hurbil. Beharbada ikasleek badituzte senideak, edo oporrak emanak dituzte halakoetan. Eta ziur sumatu dutela zein desberdinak diren hiri girotik.

5. Pertsonaiak

- Ikasleek argi izan behar dute, filma ikusi baino lehen, filmaren gaia Sang Wooren eta amonaren arteko harremanen ingurura mugatu behar dela. Haiak ere izango dute aitona-amonarik (ikasleak Lehen Hezkuntzakoak badi-ra, beren aitona-amonak oso gazteak izango dira, seguruenez. Hortaz, beren birraitonak edo birramonak aipatu beharko dituzue, Sang Wooren amonaren adinetik hurbilago ibiliko dira-eta). Harreman onak dituzte? Pentsaeran, gus-tuetan-edo desberdintasunik sumatzen dute?

6. Ikasgelan jorrazeko gaiak

- **Hauren kontsumismoa:** arrazoiak, kontsumo ohiturak.
- **Hirugarren adina:** belaunaldien arteko desberdintasunak, jendartean jokatzeko duten papera.
- Aski da, filma ikusi aurreko gaiak jorrazeko, ikasleei nabarmen uztea zeinen gaizki pasatzen duen Sang Wook konturatzen denean ohitua dagoen bizimodu guztiz bestelako duen herrixkan bizi behar duela, eta noren zaintzapean bizi eta askoz ere helduago den, ezagutzen ez duen eta bizimodua guztiz desberdina duen pertsona baten zaintzapean bizi behar duela! Pertsonaiarekin identifikatzeko eskatu: Sang Wook bezain gaizki pasatuko lukete? Egoeraren aurrean Sang Wook nola jokatzeko duen aztertu eta ea berdin jokatuko luketen pentsatu behar dute.

- Amona mutua delako oso elkarrizketa gutxi dagoela azaldu behar zaie. Beraz, jokabidek adieraziko digu zer pentsatzen eta sentitzen duten pertsonaiek. Haiek hobeto ulertzeko erreparatu behar diogu amonaren eta Sang Wooren eguneroko jardunari, elkarren arteko harremanari, edo sentimenduak adierazteko erari. Oso antzekoa da ikaskideekin, senideekin, lagunekin gertatzen zaiguna: jarrerak eta portaerak erakutsita, hitzez esan gabe ere, asko jakiten dugu haietaz.
- *Sang Woo eta Amona* kontakizun inteligentea da, konplexua, simplea badirudi ere: bi mundu ekonomiko, sozial, kultural eta belaunaldiz ere guztiz desberdinen topaketa, amonaren eta Sang Woorena, bai eta umearengan gertatzen den eraldaketa, amonaren etxeko eguneroko keinu txikien bidez, irudi soilen bitartez ematen da filmean (janaria atontzea, orratzean haria sartzea, arropa zabaltzea, merkatura joatea edo gaixotutako bizilagunari bisita egitea). Ez dago filmean zehar une nabarmen hunkigarrik; ez dago pertsonaien sentimenduak edota pentsamenduak azaltzeko elkarrizketaz baliatzerik. Sang Wook amonaren eguneroko lanen aurrean erakusten duen jarrerak eta ilobaren aurrean amonak erakusten duen jokaerak ezagutaraziko dizkiote ikusleari pertsonaien barne emozioak.

7. Filma ikustean erreparatu beharreko xehetasunak

- Segidan aipatzen diren xehetasunei erreparatuz gero, ikasleek hobeto egingo dute ondorengo azterketa; era berean, alde aurretik eskatzen bazaie, adiago egongo dira filmak irau bitartean. Galderon erantzunik ez zaie eman behar, informazio hau luzatzen zaio irakasleari ez beste inorentzat, lagungarri gerta dakion; baina ikasleek deskubritu behar dituzte.
- **Zein da amonak Sang Woori egiten dion lehendabiziko maitasun keinua? Eta Sang Wook amonari egiten dion azkena? Zer uste duzue esan nahi dutela? Keinu bera filmaren beste ezein unetan agertzen da?**

Amonak Sang Woori egiten dion lehen keinua, eta honek amonari egiten dion azkena, eskua bularrera eramatea da, maitasuna adierazteko zein barkamena eskatzeko adierazten duena. Keinu berbera beste bitan agertzen da filmean zehar.

Horietako bat Sang Wook Cheol-Eri, herrian duen lehen lagunari, egiten dio, behi batek jarraitzen ziola esan zion gezurraz barkamena eskatzearen; bigarrean amona da horrela jokatzeko duena Sang Wooren aurrean, merkaturik bueltan atzeratua zelako.

- **Sang Wook negarrik egiten al du filmean zehar? Zergatik?**

Sang Wook askotan egiten du negar filmean zehar, bere nahikeriak edo grina behinenak zapuzten zaizkion guztietan, hain zehatz. Amonarekiko harrema-

na aldatu orduko, bestelako arrazoiengatik egiten du negar: emozioz, amonak eskuko joko elektronikoarentzat pilak erosteko dirua utzi diola deskubritzean, eta tristeziatz, amonari azken diosala egiteko tenorea hurbiltzen dela konturatzean.

- **Sang Woo aldatu egiten da filmak aurrera egin ahala. Zein da, ikusle/ikasleen ustez, aldaketa horretaz konturatzea badagoen lehen aldia?**

Ikusleei aldaketa agertzen zaien lehen aldia –oso era sotilean bada ere– Sang Woo, euria ari duela konturatuta, zabaldutako arropa korrika jasotzera joan denekoa da. Pertsonaiaren barne aldaketa nabarmena geroago da, Sang Wook, gosez, amonak prestatutako oilaskoa janez gozatu eta gero amona mantaz maitekiro estali, lapurtutako urkila ilean berriro jarri eta jana prestatzen dionekoa. Aldaketa beste behin ere agertuko da, merkatuan, amonak nolako bizimodua duen deskubritzen duenean, ez baitzikio berriro eskatuko lehenago behin eta berriro sutsuki desiratutako esku joko elektornikorako pilak.

1. Maila

Protagonista [Sang Woo] eta antagonista [amona] pertsonaien azterketa.

SANG WOO

1. Itxura fisikoa

Oso arinki jorratuko da Sang Wooren itxura fisikoa. Nahikoa ezagun egin zaie ikasleei filmean zehar, eta aski dute deskribapen labur batekin, geroko deskribapen konplexuagoetara trebatzeko, batez ere.

2. Izaera

- Sang Wooren izaerak garrantzi handia du jorratu nahi diren gaiak aztertze-ko; horregatik ikasleek, protagonistaren ezaugarri nagusiak xehe-xehe emateaz gain, gustuak eta zaletasunak ere –zabor-jana, bideojokoak, telebista, jostailu sofistikatuak...– hartuko dituzte kontuan.
- Oso kontuz ibili beharra dago, ikasleek Sang Wooren ezaugarri positiboak, edo beldurrak eta ahultasunak, ahantz ez dezaten, ez dezatela jo filmeko errealitatearekin bat etorri ez baina gaztetxo asko ikusten ohituta dauden film komertzialetako pertsonaia lau eta estereotipatu horietako bat deskribatzera.
- Sang Woo umemoko bat da, mutiri, erasokor, gutizi zale eta intolerantea. Besteak ezagutu ez eta gutxietsi egiten ditu; uko egiten dio ezein hurbilpeni; ezezaguna bazterten du eta bere desiorik berehalakoan bete daitezen exijitzen du, bestela suminez jokatzeko du.
- Sang Woo erasokorra da: Sang Wook iraindu egiten du amona, oinetakoe-tan txiza egiten dio, pixontzia puskatzen edo horman margotzen.
- Sang Woo gutizi zalea da: Sang Wook ez du ezezkorik onartzen eskuko joko elektronikoaren pilak agortzen zaizkionean; amonak prestatzen dion jakia, ezezagun zaiona, ez du dastatu nahi, areago, haserretu eta guzti egiten da; Sang Wook kasketa hartzen du bere gusturako amonak ilea gehiegi moztzen dionean.
- Baina Sang Woo beldur ere beldur da, eta babesgabe sentitzen da; adierazten ez badaki ere, maitasun kutsua dario. Alegia, amorruren azpian maitasun beharra eta helduek mugak jartzeko nahia azaltzen du Sang Wook.

3. Ingurune soziala

- Sang Woo bizi den ingurune soziala –hirian, amarekin– izaera bezain nabarmen utzi behar da, helburuak beteko badira. Ikasleek, pertsonaiaren eta bere arazoaren deskribapen laburretik abiatuta egingo dute deskribapena, filmaren hasierako eszenetatik ondorioztatuta (Sang Woo autobus bidaian eta herrixkara iritsi, amak lagunduta). Inportantea da, bada, Sang Wooren eta amaren arteko harremana aztertzea (agerikoa da ama-seeen arteko komunikazio eza bidaia osoan eta amonaren aurkezpenean: biok ala biok irain eta kolpeetan oinarritutako kode erasokorrean oinarritzen da haien harremana), baita ingurune sozialarena ere, gure protagonistaren gustuak eta zaletasunak ulertzearen. Hemen berrekin ahal zaio filmaren aurrean jorratutakoari, Sang Wooren korear hiriko eguneroko bizimoduaren eta ikasleen hirikoaren artean dauden antzekotasunez.

4. Gatazka

- Ahoz aztertu zein den Sang Wooren arazoa, eta zergatia.
- Ikasleek berek proposatu behar dute abiapuntua –filma ikusi aurreko aktibitateetan aipatua izan dena–: Sang Wooren zailtasunak hasten dira amak herrixkan utzi orduko: bertako bizimodua berak ezagutzen duen eta ohitua dagoen bizimodutik arras urruti dago, zainduko duen pertsona ere, amona, oso heldua, mutua, ezezaguna eta umea ez bezalakoa da.

5. Ikasleen identifikazioa Sang Woorekin

- Ikasleak Sang Woorekin identifikatzera bultzatu behar da –hau ere filma ikusi aurreko aktibitateetan landu da–: Sang Wook bezain gaizki pasatuko lukete haiek ere, egoera berdintsuan egonez gero? Antzekorik gertatu zaie inoiz? Sang Wook faltan sumatutako gauza berberak –telebista, bideojokoak, ohituta dauden janaria– nahi izango lituzkete haiek ere?
- Sang Woo, itxura batean, gauza materialak besterik ez du sumatzen faltan. Ez du behin ere amaren edo hiriko lagunen mina erakusten. Baliteke ikasleak hartaz konturatzea pertsonaiaren identifikazioa bilatzerakoan. Konturatuko ez balira, irakasleak galdetu behar luke Sang Wook besterik suma ote lezakeen faltan, edo ez ote duten uste beraiek halako egoeran beste zerbait sumatuko luketela faltan, baina zertaz ari den inoiz esan gabe. Haiei ere halakorik gertatzen zaie? Gauzak erosteko edo edukitzeko grinaren azpian beste zerbaiten eskasia gorde liteke?
Bene-benetan behar dute erosten duten guztia?

6. Sang Wooren aldaketa astiro

- Behin ikasleek Sang Wooren arazoa ezagutu eta zergatiaz galdetu ondoren, dedikatuko dira Sang Wooren erreakzioak nolakoak diren eta nola poliki-poliki-

ki aldatzen diren eztabaidatzera. Nola jokatzeko du Sang Wook amonaren etxera iristen denean? Andreaken aurka egiten dituenak (oinetakoetan txiza egitea, iraintzea, jatekoari destaina egitea...) aipatuko dituzte ikasleek. Halako egoera batean berdin jokatzeko lukete? Hala ez bada, nola uste dute jokatzeko luketela?

- Ondoren, galdetu ikasleei noiz uste duten aldatzen hasten dela Sang Wook –filma ikusi aurreko aktibitateetan hari erreparatzeko eskatu zitzaizen– eta aldaketaren zergatiak.
- Sang Wook jarreraz aldatzen hasi orduko zer gertatzen den planteatu. Heldu berriro filma ikusi aurreko aktibitateetan egindako galderari, hots, noiz eta zergatik egiten duen negar Sang Wook. Aldaketaren aurretik eta ondotik arrazoi berberengatik ala desberdinengatik egiten du negar?
- Sang Wook jarreraz aldatzen duenean, lehentasunak, portaera, zaletasunak eta ekintzak ere aldatzen ditu. Adeitsuago agertzen zaie besteei eta gauza eta pertsona berriak ezagutzeko gogoak dauka (kontsumo gaiei lotuak ez dauden jokoak ezagutzen ditu, lagunak egiten ditu, janari berriak dastatzen eta gozatzen ditu); ez da hain erasokorra, eta batzuetan maitasunak bultzaturik jokatzeko du (amona mantaz estali, lapurtutako urkila itzuli, bere gozokietako bat opari ematen dio, gaixotutako bizilaguna bisitatzera laguntzen dio eta, filmaren bukaera aldera, bera egongo ez denerako lana egina izan dezan eskura dituen orratz guztiak albainutuak uzteaz gain, esaldi batzuk idazten irakasten ahalegintzen da, herritik urrun egotean elkarren berri izan dezaten).

AMONA

1. Itxura fisikoa

- Amonaren itxura fisikoa Sang Woorena baino askoz sakonago aztertuko da, gero bere izaeraren ezaugarriekin alderatu eta azterketa joriago egin ahal izateko.
- Amona edadeko andre bat da, ikaragarri zimurtua eta makurtua. Mantso-mantso ibiltzen da, makilaren laguntzaz. Gaizki ikusten du eta mutua da. Hasiera-hasieratik, itxurak sinestarazten digu emakume huskorra dela, osasunez panggal, eguneroko lanak egiteko gai ez, are gutxiago zazpi urteko ume baten ardura hartzeko. Baina, aitzitik, baserri giroko herrixka bakarti batean lan izugarri gogorak eginez bizitzeko gauza da, eta batetik bestera mugitzeko (aski da gogoan hartzea nola bilatzen duen oiloa ilobari bazkaria prestatzeko, edo nola joaten den merkatura); bere gain hartzen ditu beharra duten eta harekin maitasun harremanak dituzten pertsonak; areago, egunero-egunero eusten die Sang Wooren erasoei. Hortaz, film osoan zehar, ahula dirudien arren, agertzen zaigun pertsonaia bere itxura ez bezalakoa da: sendo

eta indartsua, bakardadeak eta ingurune naturalak eragindako bizitza ez beti errazak zaildua eta ondua, gogotsua, guztiz independentea eta bizirauteko sen ikaragarrikoa.

2. Izaera

- Esan bezala, itxura fisikoaren guztiz bestelakoa da amonaren izaera, eta hala agertuko da film osoan zehar.
- Amonaren nortasuna aztertzea luzea eta zail samarra gerta dakieke ikasleei; izan ere, pertsonaia hermetikoa da –batik bat mutua delako, hitzez ezin adierazi, beraz–, ikusleei heltzen zaien gauza bakarra jarrera da, gehienetan pasiboa, ilobaren erreakzio bortitzen aurrean.
- Amonaren pertsonaia ikasleengana hurbilarazteko, filma ikusi aurrean aitona-amonei buruzko elkarrizketari berrekingo dio irakasleak. Beraiek ere aitona-amonak edo dituzte. Sang Wooren antza al dute? Zein antz eta desberdintasun fisiko dute? Eta izaeran eta jarretetan?

3. Ingurune soziala

- Amonaren ingurunea Sang Woorenaren aldean aztertuko da. Baserri giroa Sang Wooren kale giroaren nabarmen desberdina da. Hemen ere berriko ekiten ahal zaio filma ikusi aurretik jorratutako baserri bizimoduaren eta kale-tar giroaren arteko desberdintasunez: amonaren herria ikasleek ezagutzen ahal duten herri batekin konpara daiteke.
- Interesgarria litzateke ikasleek, Ekialdean zein Mendebaldean, garapen ekonomiko eta sozialak erakarrirako balio propioen galeraz galderarik planteatuiko balute: Sang Wooren bizimodua, gustuak eta zaletasunak estandarizatuak daude, tartean milaka kilometro egon arren mendebaldar umeen berdinak dira; amonaren herrixkako bizimodua, berriz, desberdina da, hango eta hemengo hiriarren desberdina ez ezik, ikasleak ezagutzen duen baserri bizimoduaren aldean ere, baina hango eta hemengo baserri giro bietan gordetzen dira hirietan aspaldi galdutako balio tradizional propioak. Horren argibide, aipa daiteke Sang Woo etxe barruan patinatzen ari deneko eszena. Sekuentzia hau korear ohiturak aintzat hartuta ulertu behar da: inor ezin da etxe batean sartu alde aurretik oinetakoak erantzi gabe.
- Hurrengoan, amonaren egunerokoa ikasleekin planteatu daiteke: bakarrik bizi da, alaba apenas joaten zaion bisitan, iloba ez du ezagutzen...

Nola bizi dira ikasleek ezagutzen dituzten pertsona edadekoak? Nola bizi dira haien aitona-amonak, birraitonak edo birramonak?

4. Gatazka

- Sang Woo bere etxean hartzea da amonaren gatazka; berak, ordea, hasie-

ratik onartzen du, maitasunez eta egonarriz. Ikasleek gogoratu beharko dute zein den amonak ilobari egiten dion lehen keinua: eskua bularrera eramatea.

- Sang Wooganako amonaren jarrera egonarriz itxarotekoa da. Ez da haserretzen ez arinkiaz aritzen. Eskuzabal eskaintzen dio maitasuna, behin eta berriro ukoa jasotzen badu ere. Ilobaren kasketei ez die inoiz erasozerantzuten, eta beldur denean babesteko prest agertzen zaio beti. Amonak denbora ematen dio Sang Woori maite dezan eta hari fida dakion. Filmaren bukaeran, Sang Wook amona onartu ez ezik, maite du, haren presentzia eta konpainia behar duela aitortzen du; areago, amonaz duen arduraren jakitun, aurrerago doa: amonak ere bera behar du, bera ere inportantea da amonarentzat. Sang Wooren jarrera behin betiko eraldatzen da azken diosalaren orduan amonari harentzat prestatutako postalak ematen dizkionean, eta agur esateko amonak elkar ezagututakoan egindako keinu bera –eskua bularrera eramatea, hain zuzen ilobak amorruez arbuatutakoa– egiten dionean.
- Amonaren jarrera da Sang Woo poliki-poliki eraldatzen duena. Galdetu ikasleei zergatik uste duten jokatzeko duela hala amonak, eta zergatik uste duten lortzeko duela iloba eraldatzea.
- Arreta Sang Wooren amonarengandik ikasleek ezagutzen dituzten pertsona edadekoengana eraman: zer onik ematen diete?

2. Maila

Jorratutako gai(et)an sakontzea, pertsonaietatik eta beren ikuspuntuetatik abiatuta.

Eztabaida

- Jarraian gidoi moduko bat eskaintzen zaio ikasleari, orientabide gisa, Sang Woo ordezkaten duten taldearen eta amona ordezkaten dutenaren arteko eztabaida nondik nora izan daitekeen. Oraingo honetan, amona mutuak ahotsa berreskuratuko du, ordezkaten duten gaztetxoaren ahotsaz bada ere.

SANG WOO

- Sang Wook mota guztietako jostailu pila (patinak, bideojokoak eta abar) dauzka, telebista gustuko du... Benetan du gauza horien guztien beharra dibertitzeko? Bizi diren hiriko ume guztiak gauza berdinekin jolasten dira? Ez zaie inoiz bururatu bat-bateko gauzekin, edo asmatutakoekin edo irudikatu-takoekin, dendetan erosi gabekoekin jolastea?

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

- Sang Woo telebista piztu nahian
- Sang Woo etxetik kanpo eta barnean patinetan
- Sang Woo errobotarekin jolasean
- Sang Woo eskuko joko elektronikoarekin jolasean (ez ahaztu Sang Woo etsipenak hartzen duela jokoaren pilak agortzen zaizkionean)

- Zergatik jostatzen da bakarrik Sang Woo? Zergatik ez ditu bere jostailuak beste pertsonekin banatzen?

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Arestian aipatu eszena guztietan Sang Woo bakarrik jostatzen da (ez ahaztu Sang Wook Cheol-E, auzo etxeko umea, topatzen duenean, honek elkarrekin jostatzeko eta jostailuak banatzeko proposatu eta Sang Wook ezetz esaten diola).

- Badirudi jostailuen hainbesteko beharrik ez duela Sang Wook kanpoan jostatzea eta lagunak egitea erabakitzen duenean; areago, Hae-Yeon lagun berriari pelutxe baten truke aldatzen dizkio: zergatik?

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Hae-Yeonek harriz eraiki duen irudimenezko etxea zapaltzen du Sang Wook; Sang Wook jostailu guztiak orgatxoan daramatza, eta orgatxoa hutsik baina Hae-Yeonek opari emandako pelutxea dakarrela itzultzen da.

- **Sang Woori freskagarriak, ontziraturako produktuak edo marka zehatz batzuenak eta gozokiak beste janari-edaririk ez zaio gustatzen. Zergatik baztertzen ditu beste jakiak dastatu ere egin gabe? Izan ere, oso gose delako azkenean oilaskoa jatea erabakitzen duenean, oso goxo dagoela deritzo.**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Elkarrekin jaten duten lehen aldian, amonak jana katilu batean jartzen dio, eta Sang Wook uko egiten dio, berriro bere platerera botaz; amonak bereztat beste inorentzat prestatzen du jana, Sang Wook bakarrik jaten du –edo zein ordutan– amak utzi dizkion ontziraturako jaki eta gozokiak bukatu arte. Sang Wook, goseak amorraturik, oilaskoa jaten dueneko eszena ikasleek kontuan hartzeko modukoa da, akzioan inflexio gunea da eta.

- **Zergatik haserretzen, sumintzen da Sang Woo amonarekin? Zergatik tratatzen du era hain erasokorrean? Zergatik aldatzen du portaera elkarrekin estu bizi ondoren?**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Sang Woo amonaren etxera iritsi ondorengo eszena guztiak, asko jada aipatuak: Sang Wook amonaren oinetakoetan txiza egin, etxe barruan patinatu, pixontzia hautsi, hormak margotu, amonaren urkila lapurtu...

Sang Wook arropa ez bustitzeko sokatik kentzen duenez geroztik, amonaren aurkako nahiz maitasun eta ulerpenezko eszenak tartekatzen dira, bukaera aldera hurbildu ahala aurkakoak gutxitzen direla.

Merkaturako bidaia esanguratsua da oso: Sang Wook, Hae-Yeon ikusita, saskia bota eta amona abandonatzen du; amonak bere anoa nola saltzen duen ikusten du Sang Wook, eta gero nola eramaten duen bazkaltzera eta oinetakoak erostera; gero, pilak saltzen dituen denda ikusten du Sang Wook, baina amonari erosteko dirurik ez eskatzea erabakitzen du; geroago, autobusean, berriro uzkur zaio amonari, eta amonak eskatzen dionean, uko egiten dio fardela leihotik hartzeari.

- **Sang Woori zaila egiten zaio oso maitasuna erakustea amonari. Zergatik? Nola egiten du azkenean?**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Sang Wook ez du inoiz maitasuna fisikoki adierazten: aski da gogoraraztea azken diosala autobusean, Sang Woo, amonagandik aldentzea atsekabertzen duen arren, ez da gauza besarkada batez edo begirada soil batez erakusteko. Sang Wook maitasuna adierazteko era eguneroko jarreretan azaltzen da. Haietako asko aipatu da, baina merezi du filmaren bukaera gogoraraztea: Sang Wook amonaren orratzak albainautuak uzten ditu, eta postal batzuk marrazten dizkio, bidal diezaizkion: “Zure falta sumatzen dut”, “Gaixorik nago”.

AMONA

- **Amonari baserri giroan bizitzea gustatzen zaiot? Ez zaito inoiz hirira joatea bururatu?**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Amonak eguneroko lanak naturaltasunez egiten dituen guztiak: sukaldean, errekan ikuzketan, ur bila, etxe txukunketan...

- **Bakarrik sentitzen da?**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Bizilagunei elkartasunez egindako bisitak aipatzea: gaixotutako baserritarra, mugitu ezinik dagoen dendaria. Nabarmen jartzekoa da Cheol-Ek eguneroko lanetan amonari eskaintzen dion laguntza, bereziki autobusean, amonak hitzik gabe esan nahi duena ulertzeko –eta batez arreta eskaintzeko– erakusten duen gaitasun apartaz, Hae-Yeon harri eta zur utzirik.

- **Zergatik ez da amona Sang Woorekin haserretzen, jarrera erasokorra agertuagatik ere?**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Asko dira filmean zehar. Adibidez: Sang Wook pixontzia haustean, amona puskak biltzera mugatu. Sang Wook urkila lapurtzean, amonak ezer esan gabe ordeztu. Sang Wook merkatuan saskia botatzean, amonak errieta gabe bildu.

- **Amonak zergatik zaintzen eta laguntzen du Sang Woo beharra duenean, iloba harekin oker portatu arren?**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Batez ere gogoratu amonak ilobari gauez laguntzen dion une parean, umea bakarrik ateratzeko beldur da eta.

- **Amona penatu egiten da Sang Woo hirira bueltatzean? Haren falta sumatuko du?**

Ikasleek gogora ditzaketen eszenak:

Amonak ez du inoiz penarik argi eta garbi erakusten, baina filmaren azken sekuentzietako batean badago une bereziki hunkigarriak: Sang Wook amonari "Faltan sumatzen zaitut", "Gaixorik nago" idazten erakutsi nahi dio. Umeak, elkarrengandik aldendu behar dutela eta, etsipenez negar egiten du. Amonak burua makurtzen du, garondoa besterik ez diogu ikusten; baina penaz, negarrez ere, dagoela pentsa dezakegu.

3. Maila

Jorratutako gai(et)an sakontzea, ikasleen inguruko pertsonaia berriak kolektiboki sorraraziz.

Jarraian aurkezten diren pertsonaia eta egoera posibleak orientabide izateko asmoz dira, irakasleari eskaintzen zaion laguntza, ikasleekin gaiak lantzeko tenorean.

Haurren kontsumismoa

- Haur batek egun osoa ematen du ordenagailuan jolasean; ez du lagunik eta ez da etxetik ateratzen. Deskribatu pertsonaia eta bilatu denen artean irtenbide bat halako egoerari.
- Haur bat inoiz ez da ezerekin pozik egoten; besteek daukaten guztia nahi du berak ere; gauza gehiago erosteko eskatzen ari da etengabe. Pixka bat erabili eta berehala baztertzen ditu, berriak eros diezazkion eskatzeko. Deskribatu pertsonaia eta bilatu denen artean irtenbide bat halako egoerari.
- Haur batek ez du lagunik. Ikaskideek baztertzen dute, haiek bezainbeste kontsumo-gai eskuratzerik ez duelako. Deskribatu pertsonaia eta bilatu denen artean irtenbide bat halako egoerari.

Hirugarren adina

- Seme-alabak inoiz bisitan joaten ez zaizkion edadeko pertsona bat. Deskribatu pertsonaia eta bilatu denen artean irtenbide bat halako egoerari.
- Edadeko pertsona bat, bakarrik ezin bizi eta, zaharren egoitza batera joan beharrean da. Deskribatu pertsonaia eta bilatu denen artean irtenbide bat halako egoerari.

4. Maila

Argumentuaren azterketa, jorratutako gai(et)an sakonduz.

Zergatik gertatzen da gertatzen dena eta ez besterik?

- Amak Sang Woo amonaren etxean utzi eta umeak erasokor jokatzen due-nekoa da filmaren abiapuntua. Amonak egonarriz eta maitasunez erantzuten dio. Poliki-poliki –eta pertsonaia bion egunerokotasunari lotutako eszena oso xaloen bitartez–, umearen eraldaketa gertatzen da, harik eta azkenerako amonaren eta ilobaren artean maitasun lotura bat sortzen den arte.

Bestela izan zitekeen?

- Irakasleak planteatuko die ikasleei zer gertatuko zatekeen Sang Wook edo amonak desberdin jokatu balute. Kontua da historia aldatzea, Sang Wook amonaren etxera iristerakoan erakutsitako jokaera aldatuz, edo amonarena, Sang Woorekin lehen aldiz aurkitutakoan. Zer gertatuko zatekeen, adibidez, amonak Sang Wooren kasketei haserreturik erantzun balie? Edo, alderantziz, ilobaren erreakzioen beldur, bere nahikeria guztiak nola edo hala asetzen ahalegindu balitz? Zer gertatuko zatekeen Sang Woo, erasokor eta gutizi zale agertu beharrean, ilun eta isil agertu balitz? Eta amonaren etxetik alde egin eta etxera bakarrik bueltatzen saiatu balitz?

5. Maila

Irudiaren azterketa, jorratutako gaien arabera.

Ikasleekin aztertu beharreko sekuentziak

1. Sang Woo amonaren etxera iritsi da

Sang Woo amarekin iritsi da amonaren etxera. Amak kameratik kanpo (sekuentzia osoan eta hurrengoan mantentzen den off-eko ahotsaz) bere egoera afektibo eta ekonomiko latza azaltzen duen bitartean, kamerak Sang Wooren aurpegia erakusten digu: tristura baino, mesfidantzaren eta etsipenaren arteko zerbait dario. Gero, eta plano motz edo xehe deitutakoen bitartez, Sang Wooren begiak balira bezala (plano subjektiboz), inguruan deigarri egiten zaizkion gauzak erakusten dizkigu kamerak: botila batzuk hormatik zintzilik, erratz bat, zatar bat; berriro Sang Wooren aurpegira bueltatuz, ingurura begira dagoela eta mainatan dagoela ikusten ahal dugu; plano motz edo xehe gehiago Sang Wooren ikuspuntutik: bonbillarik gabeko lanpara-zorro hautsia, sitsa harrapatua duen amaraun bat, eta solairutik korrika eta zuraren pitzadura batetik ihesi doan labe-zomorro bat. Gero, amak off-ean hizketan jarraitzen duen bitartean, hurrengo sekuentzian, kanpoan, kamerak plano motz edo xehe bat erakusten digu: amonaren zapata higatuak, txorrota haien gainean isuri eta busti egiten dira; plano orokor batera zabaldu eta Sang Woo oinetakoen gainean txiza egiten ari dela ikusten ahal da. Era soilean, hitzik gabe, zuzendariak umearen ikuspegia eskaintzen digu, nola, hiriko bizimodu kontsumistara jarririk dagoenez, baserriar giro berria zikin eta txiro egiten zaien.

Sang Wook berehalako etorkizunean amonaren aurrean zer nolako jokaera ere aurreratzen digu: mutirikeria eta eraso garbia, hain zuzen amak dioenaren alde-rantzizkoa (off-ean, eta oinetakoen gainean txiza egiten ari den bitartean, umea bakarrik egotera ohitua dagoela eta beraz trabarik egingo ez diola entzuten ari gara).

2. Amona eta koloretako piezak

Badago aztertzeko beste sekuentzia interesgarriarik. Esaterako, amona egoki, zein bere tokian, eta lortu gabe, Sang Wooren jostailuzko kamioiaren sabaiko zurezko pieza kolore eta forma desberdinetakoak sartzen saiatzen denekoa. Sekuentzia panoramiko batekin hasten da; hots, kamera horizontalean bere ardatzaren gainean mugitzen da, amonaren aurpegi kontzentratu-raino garamatzala. Gero, plano motz edo xehe esaten den bat, amonaren esku zimurtuek pieza bat sartu nahi dute toki okerrean. Kameraren beste mugimendu bertikal (panoramiko) batek amonaren aurpegia, oraingoan setatsu, erakusten digu berriro. Eskuen beste plano bat: gaizki, baina pieza bat kokatzea lortu dute.

Berriro amonaren aurpegi kontzentratua. Berriro amonaren eskuetara, sartzerik izan ez duten pieza bat alboan utzirik. Berriro andrearen aurpegia. Eta orain plano orokor bat: Sang Woo lo dago lehen terminoan. Bigarren terminoan amona dago, piezak jostailuan sartuko dituelakoan, temati. Azken plano motz edo xehean, piezak sartu gabe geratu dira, baina amonak txukun jarriak, solairuan zutik eta lerroan.

Sekuentzia labur eta xalo hau edukietan joria da oso. Batetik bi munduen arteko oposizioa aurkezten du, amonarena eta ilobarena. Amonak, itxura fisikoak eta adinak kontrakoa iradokitzen badute ere, gauza da eguneroko lan gogorak arin eta trebe egiteko, baita Sang Woo zaintzeko ere; baina ez da gauza edozein umek minutu gutxitan egingo lukeena asmatzeko. Sang Wook ez luke jostailuarekin inolako problemarik izango, baina solairuan lo dagoela, lehen terminoan, benetako problemak agerrarazten dizkio ikusleari: babesgabe, ahul, laguntza beharrean. Jokoarekin ezin asmatuak agerian uzten du zeinen zaila zaion amonari umea datorren mundua ulertzea, behin eta berriro gogotsu saiatu arren; halarik ere, ez du amore ematen, ez du etsitzen eta –bere erara– ordenatu egiten ditu piezak, eta Sang Woo ulertu ez baina errespetatzen duelarik, bigarren terminoan beti ere (irudian agertu bezala), umeari behar duen maitasuna eta segurantza ematen dio.

3. Sang Woo eta orgak

Aztertzeko proposatzen azken aukera orgen sekuentzia da, Sang Woo bidezidor estu batetik orga txiki batekin dabileneko, harik eta orga askoz handiagoa bul-tzatzen duen baserritarrarekin topo egin arte. Plano ertain luzeak, ertain motzak eta orokor bat edo beste konbinaturik, zuzendariak kontaktzen du Sang Wook izan nahi duela lehena pasatzen; baina, baserritarraren orga handiagoa dela ikustean, beldurrez, lekua egitearren baztertu egiten da. Bestea urruti dagoenean, Sang Wook orgatxoaz lurra jo eta baserritarrari destainazko keinua egiten dio, baina begiratu gabe, kamerarantz doan bitartean.

Sekuentzia honek soil eta eraginkor erakusten du Sang Wooren oinarriko nor-tasuna: beti defentsiban dagoen umea. Arau sinpleak oinarritzen du haren portaera: zapaltzea ala zapaldua izatea (merezki du amarekiko harremana gogora ekartzea, nola –filmaren hasieran– elkar jo eta iraindu egiten duten amonaren etxera bidean). Sang Wook ez du etsitzen ez baldin bada beldurrez edo parekoa handiago eta indartsuago delako, eta hala ere irainez eta bortizkeriaz baieztatzen du bere burua. Amonak maitasunez eta egonarriz apalduko du, eta portae-ra kode negatibo hori uztera eramango.

Jorrotutako gaia(k) aberasteko asmoz filmari gehitutako beste osagaien azterketa.

- Esaterako, *Sang Woo eta amona* filmean, irakasleak filmaren erritmoa lan dezake ikasleekin.

- Film bakoitzak bere erritmoa dauka, kontatzen duen historiari eta pertsonaien ezaugarriari lotua. Zinemaren denbora ezin da estandarizatu (gaztetxoek ikusten dituzten film komertzial askotan hori egin ohi den arren).
- *Sang Woo eta amona* erritmo mantsoko filma da, plano luzekoa eta trantsizio sekuentzia askokoa –aski da kontuan hartzea zenbat aldiz erakusten diren Sang Woo edo amona inguruko bidexka makurretan barrena–. *Sang Woo eta amona* ezin da azkarrago gertatu baserri giroko denbora ere azkarrago izaten ez delako, hiriko bizimodu ezin arinagoa ez bezala.

Sang Wooren denbora pertsonala ere, filmean bezala, astiro-astiro pasatzen da, hiriko bizimodua urruti zaiolako herrixkan, baina baita dentsitate handikoa delako. Amonarekin baserrian emandako uda esperientzia afektiboz gainezka dago, hainbeste, ezen umearen bizitzan erabateko aldaketa eragingo baitu.

Azkenik, filmaren erritmoa mantsoa da, amona mantsoa den bezala, ikaragarri poliki, lasai eta bare ibiltzen eta bizitzen den andrea baita.